

## **Luhusoko auzia :**

### **Errugabetzea, Euskal Herrian behin betiko orrialde berri bat irekitzeko!**

Béatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverry, Parisko auzitegi korrekzionalera deituak dira 2024ko apirilaren 2 eta 3an, « armak, munizioak eta lehergaiak erabili, eraman eta atxikitzeagatik, ETA erakunde terroristarekin harremanetan ».

Leporatuak zaizkien gertakariak 2016ko abenduaren 16koak dira eta alta « bake artisau » gisa izendatuak izan dira.

Egun hartan, beste pertsona batzuekin batera, horietan Michel Tubiana Giza Eskubideen Ligako ohorezko presidentea ; Michel Berhocoirigoin, Confédération Paysanne sindikatuko idazkari nagusi ohia eta Euskal Herriko laborantza ganbera alternatiboko presidentea ; Michel Bergouignan, Irulegi arnagintza kooperatibako zuzendari ohia ; hiruak gaur egun zenduak ; Béatrice-ek eta Txetx-ek, ETA erakundearen armategitik zetozen hamar bat arma eta lehergailu kutxa indargabetzeko opaerazioan parte hartu zuten Luhusoko herrian.

### **Bake artisauak**

Atxilotuak eta atxiloaldian atxikiak izan ziren ekintza hau euskal gizartearen eta sentsibilitate politiko orotako ordezkariak politikoaren gehiengoak txalotu eta sustengatu zuen Cette action, qui leur valut d'être arrêtés et placés en garde-à-vue antiterroriste fut applaudie et soutenue par la majorité de la société basque et de ses représentants de toutes sensibilités politiques.

Honela, Euskal Herriko eta kanpoko jendarte zibileko pertsonalitate horiek, beren engaiamendu ez-bortitzagatik ezagunak zirenak, ETAk 5 urte lehenago hartu zuen borroka armatua behin betiko uzteko erabakia laguntzeko eskatu zuten, Parisen eta Madrilen inizatiba eskasari erantzunez. Bi estatuek errepresioaren bidean segitzen zuten, sakabanaketa eta salbuespen politikak aplikatuz euskal presoen kontra, eta armategia modu ordenatu eta segurrean deuseztatzea eragotziz ETA erakundeari.

Luhusoko ekimenak armategiaren desegitea abiatzea zuen helburu, autoritateek azken 5 urteetan erakutsi zuten inertziari bukaera emateko. Beste ehundaka Bake artisauk hartu zuten erreleboa 2017ko apirilaren 8an. 20 000 pertsona bildu ziren Baionan armagabetze egunarentzat, zeinetan, erakundeak euskal gizartearen esku utzi ondoan ardura hori, ETAREN armategia neutralizatu zen.

Lehen aldiz, euskal presoen gaiaren inguruan lan espazio ofizial bat sortu zen Frantziako gobernuaren eta Bake artisauen artean, esperantza sortu zuena eta espetxeratze baldintzen inguruan lehen urratsak ahalbidetu zituen.

2018ko maiatzaren 3an, ETA erakundeak bere desegitearen berri eman zuen ofizialki.

### **Aitzinera begira**

Denen iduriz, Luhusok 5 urteko immobilismo arriskutsuari bukerak eman dio, denbora Denborari bultzada bat eman dio eta Euskal Herriarentzat perspektiba berriak eraikitzeko aitzindari izan da. Asko gelditzen da egiteko bake oso eta iraunkor batentzat, errebantxarako asmorik gabe, izan biktima guztiei zor zaien ezagupenean, oraindik preso diren pertsona guztietan, iheslarietan edo memoriari zor diogunean.

Horregatik, guk, izenpetzaileok, ezin dugu ulertu Béatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverry epaitegi baten aitzinera igortzea, Euskal Herrian bake gehiagorako eta berriz adiskidetzeko gelditzen den bidearen kontrako zentzuan bait doa.

Errugabetze argi eta sinplea eskatzen dugu. Euskal Herriak denbora luzeegian ezagutu duen konfrontazio armatu baten ondorioak elkarrekin konpontzeko seinale bezala, eta bere Historiaren orri berri bat irekitzeko borondate bateratu bat bezala ulertuko litzateke.